BARRUALDE-GALDAKAO ESI

1498/2017 EBAZPENA, urriaren 17koa, Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Elvia Magdalena Eizaguirre andrea, izendapen askearen bitartez, **Erizaintzako adjuntu** izendatu da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao ESIn.

1306/2017 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao ESIko Erizaintzako adjuntu lanpostu bat izendapen askearen bitartez betetzeko deialdia onartu zen.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Elvia Magdalena Eizaguirre andreak dituen ezagutza akademikoak eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori Erizaintzako adjuntu izendatzea, izendapen askearen bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao ESIn.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan, eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

**EBATZI DUT**

Lehena.- Elvia Magdalena Eizaguirre andrea Erizaintzako adjuntu izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao ESIn.

Bigarrena.- Izendapen honi dagokionez, ondorioetarako data hau izango da: 2017ko azaroaren 1a.

OSI BARRUALDE-GALDAKAO

RESOLUCIÓN 1498/2017, de 17 de octubre, del Director Gerente de la OSI Barrualde-Galdakao, por la que se nombra, mediante libre designación, a Dª Elvia Magdalena Eizaguirre para el puesto de **Adjunta de Enfermería** en la OSI Barrualde-Galdakao de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 1306/2017, se convocó la provisión, mediante libre designación, de un puesto de Adjunto/a de Enfermería en la OSI Barrualde-Galdakao de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Efectuada por la Comisión la valoración de las solicitudes presentadas así como la correspondiente propuesta de nombramiento, y a la vista de los conocimientos académicos y profesionales que concurren en Dª Elvia Magdalena Eizaguirre procede efectuar su nombramiento, mediante libre designación, como Adjunta de Enfermería en la OSI Barrualde-Galdakao de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre,

**RESUELVO**

Primero.- Nombrar a Dª Elvia Magdalena Eizaguirre como Adjunta de Enfermería en la OSI Barrualde-Galdakao de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Segundo.- El presente nombramiento surtirá efectos el 1 de noviembre de 2017.

Labeaga Auzoa 46 A - 48960 Galdakao
Tel. 944 007 000 - Faxa 944 007 109

Hirugarrena.- Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake, izendapen askeko sistemaren bidez, dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain justu, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio, eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin, antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokionez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakaon, 2017ko urriaren 17an.

Barrualde-Galdakao ESIko Zuzendari Gerentea

Tercero.- El personal nombrado para puestos de trabajo por el procedimiento de libre designación podrá ser cesado con carácter discrecional por el órgano que efectuó el nombramiento. El cese o la remoción supondrá el traslado a otro puesto funcional, manteniéndose en todo caso las condiciones propias de la categoría que ostente el interesado, efectuándose la adscripción a puesto de las mismas características y preferentemente en el mismo ámbito organizacional y territorial que venía ocupando con anterioridad a su nombramiento. La adscripción tendrá efectos del día siguiente al de la fecha de cese y se efectuará conforme al procedimiento que se fije en Osakidetza. Deberá reunir todos los requisitos y condiciones exigidos para la provisión del puesto.

Cuarto.- Notifíquese la presente resolución al interesado.

Quinto.- Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el BOPV.

En Galdakao, a 17 de octubre de 2017

Osakidetza
BARRUALDE-GALDAKAO ESI
OSI BARRUALDE-GALDAKAO
ZUZENDARI GERENTEA
DIRECTOR GERENTE

El Director Gerente de la OSI Barrualde-Galdakao

JON GUAJARDO REMACHA